

1. NOIZ ERABILI BEHAR DA MUGAGABEA?

1.1. *Izen propioetan*: Zer, zein, zenbat galdekariekin.

1.2. *Determinatzaile zehaztugabeekin*

Aurretik: Edozein / Zenbait / Makina bat / Honenbeste, horrenbeste, hainbeste / Hainbat / Edozer...

Atzetik: asko / gutxi / batzuk / gehiago / gutxiago...

1.3. *Zenbakiekin*: zein diren ez dakigunean

1.4. *Zenbait esaera finkoetan*: Sutara bota / Eguzkitan bero-bero / Izerditan egunero / Uretara noa.

2. MUGAGABEA ETA ADITZA

Perpaus bateko aditzarekin komunztutzen duen izen-sintagma mugagabea dagoenean, aditza singularrean edo pluralean jokatuz zalantzak sortzen dira. Puntu horri buruz ez dago arau zehatz eta bakarra. Beraz, badirudi kasu horietan aditza nahiz pluralean nahiz singularrean joka daitekeela.

Adib.: Makina bat haur eskolaratu da / Makina bat haur eskolaratu dira.

DEKLINABIDEA LANTZEKO ARIKETA GEHIAGO (MUGAGABEA)

- 1.- Jende asko _____ hitz egin dut gaur goizean
- 2.- Zein mediku _____ operatu du zure osaba?
- 3.- Zenbat irakasle _____ dago euskaltegian?
- 4.- Zein kale _____ dago Kultur Etxea?
- 5.- Eskola horretan ikasle asko _____ ikasten du
- 6.- Mikel edozein irakasle _____ ezkonduko litzateke
- 7.- Uda honetan hondartza _____ joango naiz eta itsasoko ur _____ sartuko naiz
- 8.- Makina bat mendi _____ joan da Iñurategi
- 9.- Zein denda _____ erosi duzu alkandora hori?
- 10.- Onintze asko _____ geratzen da etxean ikasten
- 11.- Zein denda _____ atera du eskaintza hori?
- 12.- Zenbat ordenagailu _____ dauka birusa?
- 13.- Hamaika lapur _____ dago kartzeletan
- 14.- Txikitan amak ezin izaten ninduen ur _____ atera
- 15.- Zenbat ordenagailu _____ instalatu duzu programa hori?
- 16.- Gaur egun edozein etxe _____ dago ordenagailua
- 17.- Zein unibertsitate _____ eman dizute agiria?
- 18.- Egun osoa eguzki _____ pasatzen baduzu, erreko zara
- 19.- Zein taberna _____ datoz zure lagunak?
- 20.- Ikasle gutxi _____ egoten da klasean

DEKLINABIDEA

- 1.- Gizon___ udaletxe__ aurre_____ bizi da
- 2.- Zierbena___ etxe___ asko___ dago
- 3.- Gizon hori oso alai___ da, baina gaur triste___ dago
- 4.- Neska hori_____ Zierbena_____ dira
- 5.- Andoni_____ ez dauka txakur_____
- 6.- Sirats___ ikastaroa dauka Kultur Etxe_____
- 7.- Zu___ amama Udaletxe___ ondo___ bizi da
- 8.- Ni bizi naiz___ etxe___ ez dauka igogailu_____
- 9.- Zure auto___ oso zaharra da
- 10.- Nire sendagile___ ez dauka opor_____

ERANTZUNAK

DEKLINABIDEA LANTZEKO ARIKETA GEHIAGO (MUGAGABEA)

- 1.- Jende askoREKIN_____ hitz egin dut gaur goizean
- 2.- Zein medikuK_____ operatu du zure osaba?
- 3.- Zenbat irakasle-_____ dago euskaltegian?
- 4.- Zein kaleTAN_____ dago Kultur Etxea?
- 5.- Eskola horretan ikasle askoK_____ ikasten du
- 6.- Mikel edozein neskaREKIN_____ ezkonduko litzateke
- 7.- Uda honetan hondartzaRA_____ joango naiz eta itsasoko urETAN_____ sartuko naiz
- 8.- Makina bat mendiTARA_____ joan da Iñurrategi
- 9.- Zein dendaTAN_____ erosi duzu alkandora hori?
- 10.- Onintze askoTAN_____ geratzen da etxean ikasten
- 11.- Zein dendaK_____ atera du eskaintza hori?
- 12.- Zenbat ordenagailuK_____ dauka birusa?
- 13.- Hamaika lapur-_____ dago kartzeletan
- 14.- Txikitan amak ezin izaten ninduen urETATIK_____ atera
- 15.- Zenbat ordenagailuTAN_____ instalatu duzu programa hori?
- 16.- Gaur egun edozein etxeTAN_____ dago ordenagailua
- 17.- Zein unibertsitateTAN_____ eman dizute agiria?
- 18.- Egun osoa eguzkiTAN_____ pasatzen baduzu, erreko zara
- 19.- Zein tabernaTATIK_____ datoz zure lagunak?
- 20.- Ikasle gutxi-_____ egoten da klasean

DEKLINABIDEA

- 1.- GizonA___ udaletxe-__ aurreAN_____ bizi da
- 2.- ZierbenaN_____ etxe-_____ asko-_____ dago
- 3.- Gizon hori oso alaiA_____ da, baina gaur triste-_____ dago
- 4.- Neska horiEK_____ ZierbenaKOAK_____ dira
- 5.- AndoniK_____ ez dauka txakurRIK_____
- 6.- SiratsEK___ ikastaroa dauka Kultur EtxeAN___
- 7.- ZuRE___ amama Udaletxe-_____ ondoAN___ bizi da
- 8.- Ni bizi naizEN___ etxeAK___ ez dauka igogailuRIK_____
- 9.- Zure autoA___ oso zaharra da
- 10.- Nire sendagileAK___ ez dauka oporRIK_____